



■ Aukeratu:

NOR	ni	zu	hura	gu	zuek	haiek
NORK	nik	zuk	hark	guk	zuek	haiek

1. Nik herriko gazteak ezagutu nituen.
2. _____ sendagilearengana etorri ginen.
3. _____ berandu iritsi zen lanera.
4. _____ 5 suspenditu zituen.
5. _____ ez genuen izarrik ikusi.
6. _____ igerilekura etorri ziren.
7. _____ apunteak galdu zenituen.
8. _____ argazki ederrak egin zenituzten.
9. _____ ordenagailuak ikusi genituen.
10. _____ postala bidali zuen.
11. _____ ez zenuen musikarik entzun.
12. _____ ez zineten aspertuta atera zinematik.
13. _____ praka berriak erosi zituzten.
14. _____ Londresetik hegazkinez itzuli zinen.
15. _____ ez nintzen kontzertura joan.
16. _____ Mikel ikusi zenuten.
17. _____ puroa erre zuten afarian.
18. _____ pastela egin nuen.

■ Bete hutsuneak:

1. Zu oso berandu iritsi _____, baina umore ona ekarri _____.
2. Ni Mikelen ondoan eseri _____, eta oso ondo pasa _____.
3. Gu ez _____ jaietara joan eta ez _____ zezenak ikusi.
4. Leire eta Eneko isilik egon _____, baina ondo baino hobeto pasatu _____.
5. Mari txisteak kontatzen hasi _____ eta hogeitai baino gehiago kontatu _____.
6. Zuk ez _____ ezer jan, baina 2 botila ardo hustu _____.